

ASTIALDIA > EUSKAL HERRIKO TXOKOAK



XV. mendera arte uhartea izan zen San Anton, ondoren herritarrek istmo baten bitartez herriarekin lotu zuten. Egun, ondo babesten du Getariako arratoiak herriko arrantza portua. JON URBE/ARCAIZO PRESS

Olatu eta kaioek inguraturik

Lasaitasunez, kostaldeko ikuspegi ederra eskaintzen du San Anton mendiak, Getariako arratoiak.

ITSASO IBARRA
Getaria

Kantauri itsasoak inguratzen du Getaria (Gipuzkoa). Herri txikia da, arrantzalea. Moilan hainbat arrantzontzi izan ohi dira beti eta bertan erraza da ontziren bat edo beste deskarga lanetan topatzea. Moila eta portua atzean utzi eta goitik ere ikus daitezke arrantzaleen joan-etorriak. Herrian bertan dagoen San Anton mendiak ikuspegi paregabea eskaintzen du horretarako. San Anton du izen ofiziala, baina bertakoek nahiz kanpokoek Getariako arratoiak esaten diote. Horren erantzuna topatzeko aski da Zarautzik edo Zumaiatik Getariara doan N-634 errepidetik Getariarantz begiratzea, argi ikusten baita bertatik mendiak duen arratoi itxura.

Getariako Gaztetape hondartzaren gainaldean dagoen Ketarri ta-



Tontorretik ederki ikus daitezke herria eta portuko lanak. JON URBE/ARCAIZO PRESS

bernaren alboko aldatatik igo daitezke San Antonera. Arratoiak gaur egun parke babestua da, eta bertara ezin da autoz igo, hortaz, inguruan dauden aparkalekuetan utzi behar da autoa.

ARRATOIKO SORGINA. Garai batean itsasoz bakarrik gerturatu zitekeen San Antonera, izan ere, XV. mendera arte uhartea izan zen San Anton. Landarediz inguraturiko uharte izateak askoren gotorleku bilakatu zuen; uharteak urtean funtzio militarrek bete zituen. Ondoren, 1563. urtean, getariarren

lanari esker, istmo baten bitartez herriarekin lotu zuten arratoiak, bertarako bideak erraztuz.

Mendiak oinez egiteko hainbat bide ditu, bide nagusiari jarraituz itsasargi ingurura hel daiteke, eta handik gora Katxapora. Bestalde, parkean dauden bidezidorrak aukeratzuz gero, edozer topa daiteke bidean. Guillermo Urbietta eta

Garai batean, baleen arrantza zaintzen zuten San Anton menditik; egun, herritarren pasealeku bilakatu da

Imanol Ibarbia arratoiak basozainek hainbat ordu igarotzen dituzte bertan, eta ederki ezagutzen dituzte bidezidorrak jarraituz aurki daitezkeen txokoak.

Hareharrizko mendia da San Anton, eta, hortaz, olatuen eta haizearen eraginez, forma bitxiak hartzen dituzte hormek. Tarteka adreiluzko blokeak jarri dituztela dirudi, eta gorago abiatuz gero, sorgina ager daiteke ondo begiratzuz gero: «Haurrak ginela arratoiaren sorgina zegoela esaten genuen», dio Imanol Ibarbiak. Sorgina ez ezik munstroa ere ba omen da.

Goranzko bidean, norberak hainbat irudi ikus ditzake, hormak hartzen dituzten forma bitxiak eraginez, baina, badira Portugaldik Getariara heldutako Manuel Fernandesez eginiko eskulturak ere, guztien ikusgarri; *Manuel portuges*a moduan ezagutzen dute Getariar artista hori. Bere herritik Getariara heldu eta San Anton hartu zuen bizileku. Kanpadenda jarri zuen bertan eta han egon zen garaian inguruetan eskulturak egin zituen. Hala, harri batean emakume baten irudia ikus daiteke, batetik, eta baita arrantzaleak sarea eramanez irudikatzen duen beste eskultura bat ere.

BALEA ETA TXIBIAK. Ibarbiak dioen moduan, «gizatiartutako mendia da» gaur egun San Anton, eta askok paseatzeko erabiltzen dute. Garai batean, ordea, baratze ugari izaten ziren arratoiaren. Nagusiki patata ereiten zuten. Baserritarrekin batera, ordea, asko dira herrian arrantzale erretiratuak edo arrantza zaleak, eta haiek maiz hartzen dute itsasargirako bidea itsasoa zertan den begiratu ez ezik arrantzan nor dabilen ikusteko: «Txibitan nor dagoen ikustera igozten dira asko, kontrarioak non dauden jakiteko», dio Ibarbiak.

Egun itsaso ona edo txarra dagoen ikustera joaten dira asko, baina, garai batean baleen arrantza zaintzen zuten handik. Arratoiaren tontorrean dago Katxapo eraikina eta handik aritzen ziren itsasoa zaintzen. Balea agertu orduko herritarrei abisua igortzen zieten. Noski, ez zen sakelakorik horretarako, eta ke seinaleak erabiltzen zituzten baleak inguruan zeudela adierazteko. Herritarrek ke seinaleak ikustean traineruarekin ateratzen ziren balearen bila.

ITSASARGIA. Katxapo arrantzara doazenen lagungarri bilakatzen den moduan —itsasoa nola dagoen eta arrantzaleak non dauden jakiteko— itsasargia, berriz, itsasotik lurrrera datozenen lagungarria da. Egun itsasargia dagoen lekuan ermita bat zegoen lehen, eta 1813an, ermita hartan itsasargia jartzea